

II. TXARA TRAIL LASTERKETAK 2023

ETA ARRETXINAGAKO TXARA MARTXAK

1. Data eta tokia

- a. II. Txara Trail lasterketa urriaren 1an izango da, goizeko 9:30ean, Markina-Xemeingo Arretxinaga auzoan (Bizkaia). Helmuga ere leku berean izango da.

2. Ibilbideak

- a. Lasterketa laburrak 11,7 kilometro izango ditu, eta 625 metroko desnibel positiboa.
- b. Lasterketa luzeak 18,4 kilometro izango ditu, eta 1.125 metroko desnibel positiboa.
- c. Eguraldi euritsua egiten badu, *grip* edo tako handidun oinetakoak eramatea gomendatzen da.

3. Parte-hartzaileak

- a. 250 korrikalariko muga ezarriko da: hasiera batean, 125 korrikalari laburrerako eta 125 luzerako. Bietako bat betetzen ez baldin bada, beste distantzian muga handituko genuke, 250 parte-hartzailetara iritsi arte.
- b. 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, eta 15 urtetik gorakoek ere bai, gurasoen edo legezko tutoreen baimenarekin.

4. Izen-emateak

- a. Herrikrosa plataforman (www.herrikrosa.eus) eman ahal izango da izena uztailaren 1etik irailaren 25eko gaueko 23:59ak arte.
- b. 250 korrikalariko muga gaindituz gero, ondorengoak itxaron-zerrendan sartuko dira. Ondoren, izena emandakoren batek baja ematen badu, itxaron-zerrendakoei deituko zaie, izen-emate ordenaren arabera.
- c. Izen-ematea egiteko, lasterketa luzekoek 20 euro eta laburrekoek 15 euro ordaindu beharko dituzte.
- d. Abuztuaren 30etik aurrera ez da dirurik itzuliko. Epe horretatik aurrera, dirua itzultzeko salbuespena egingo da, baldin eta ziurtagiria aurkezten bada (laneko bajaren txostena, medikuaren txostena,...).

5. Derrigorrezko materiala

- a. Edalontzi biguna edo *soft flask*-a
- b. Mugikorra

6. Dorsalen banaketa eta kontsigna-zerbitzua

- a. Arretxinagako aterpean banatuko dira dorsalak, 8:00etatik 9:10era arte.
- b. Aterpean bertan, motxilak kontsignan uzteko aukera egongo da

7. Irteera

- a. Lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago irteera-puntura hurbildu beharko dute korrikalariak, eta boluntarioek korrikalari bakoitzak derrigorrezko materiala baduela ziurtatuko dute.

8. Denbora-muga

- a. Ibilbide luzeko lehen korrikalariak 2 ordu azpitik bukatuko dutela kontuan izanik, denbora-muga 4 ordukoa izango da; hau da, 13:30ean ezarriko da muga. Korrikalariak denbora-muga hori gainditzen baldin badute, dorsala

II. TXARA TRAIL LASTERKETAK 2023

ETA ARRETXINAGAKO TXARA MARTXAK

kenduta jarrai dezakete ibilbidea, eta betiere kontuan hartuz ordu horretatik aurrera ez direla kontrolatuko ez ibilgailuak eta ez bidegurutzeak.

9. Anoa-guneak

- a. Meaben iturri bat dago (4. km inguruan).
- b. Herribasoko pagadian (7,5 km), ura/isotonikoa eta fruta → Laburrekoen azken anoa-gunea izango da.
- c. Santa Eufemiko bolatokian, ura (11,5 km).
- d. Herribasoko pagadian (14,5 km), ura/isotonikoa eta fruta).
- e. Helmugan.
- f. Anoa-gunetan ura hartzeko, korrikalari bakoitzak bere edalontzi bigun edo *soft flask*a eraman beharko du.
- g. Anoa-gunetan edo inguruetan zabor-poltsak jarriko dira, edozein zabor (gelen plastikoak, edalontziak..) bertara botatzeko. Zaborra poltsa horietatik kanpo botatzen baldin bada, korrikalaria lasterketatik kanpo utz dezake antolakuntzak.

10. Helmugaratzea

- a. Oinetakoak eta hankak garbitzeko mangerak egongo dira.
- b. Dutzak Bekobentako eskola publikoan.

11. Sari-banaketa

- a. 12:45etan banatuko dira sariak (edo, azken korrikalaria arinago heltzen bada, azken korrikalaria heldu ondoren), Arretxinagako plazan jarriko den eszenatokian.
- b. Bi lasterketetan honako sari hauek emango dira:
 - i. 1. emakume zein gizonezkoarentzat txapel bordatua eta oroigarria
 - ii. 2. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria
 - iii. 3. emakume zein gizonezkoarentzat oroigarria